



EGITASMOAREN IZENA

AUZOKO ESKOLAN

"ZUBI BAT EUSKARATIK" DEKALOGOKO ZEIN OINARRIRI ERANTZUTEN DIO

- * Eskubide linguistikoak babestu.
- * Euskararekiko atxikimendua sustatu.
- * Euskara eta aniztasunaren inguruko usteak deseraiki

AZALPEN LABURRA

Auzoko eskolan hizkuntza aniztasuna lantzeko programazio didaktikoa da.

Ikasleen elkar ezagutza, aitortza eta aniztasuneko aberastasuna daude proiektuaren oinarrian. Ikastetxean eta ikasgelan egiten bada ere, herriko aniztasunaren adierazgarri izan ohi da, herriko lagunaren erakusle baitira ikastetxeetako ikasgelak.

Programazio didaktiko hori prestatutako teknikariak arduratzen dira saioen dinamizazioaz.

Saioen jarraipenean, ikastaldearen irakasleez gain, gurasoak ere parte hartzera ere gonbidatzen dira eta une horiek elkar ezagutzarako gakoa izaten dira.

HELBURUAK

1. Ikastetxeetako aniztasuna ezagutaraztea eta lantzeko baliabideak eskaintzea.
2. Jatorriak, hizkuntza eta kultura aniztasuna balioan jartzea ikasgelan.
3. LHko bigarren zikloko ikasleengan gogoeta sortzea (adinari gutzit egokitutako programazioa da).
4. Euskara hizkuntza aniztasunaren erdigunean jartzea.

HARTZAILE ZUZENA(K)

LH3 eta LH4ko ikasleak.

FUNTZIONAMENDUA

Ordubeteko lau saiok osatzen dute tailerra.

Ikastetxeko ordutegian egiten dira, LH3 eta LH4 mailako ikastalde naturalekin

Egutegia eta ordutegia ikastetxearekin adosten da.

NON MARTXAN [2021-2022]

Eskaeraren arabera antolatzen da.

ANTOLATZAILEA(K)

- * Euskaltzaleen Topagunea.
- * Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topagunea Elkarte.
- * GEU elkarte.

KONTAKTUA

aniztasuna@topagunea.eus